

Bizi ! mugimenduaren prentsaurrekoa larunbata honetan, otsailaren 25an

Bizi! mugimendu altermundialista euskalduneko hamasei militantek prentsaurreko bat eman dute otsailaren 25an larunbat honetan.

Kasik urte bat Fukushimako istripitik landa, petrolioaren prezioaren emendatze azkarra pil pilean delarik, isurtzen ditugun berotegi efektuei buruzko txostenak gero eta larriagoak direlarik, usaiaz berdez janzten diren aktibistek klima eta energiaren gaiak (2009ko ekainean sortu den Bizi! mugimenduaren oinarriak) tamalez sekulan baino gaurkotasuna dutela azpimarratu dute.

Gure etxea sutan da eta beste norabait so egiten dugu:

Nicole Etchegoyhen-ek Bizi!-ren ekintzak aurkeztu ditu, nazioarteko talde zientifikoaren iritziz beharrezkoak diren neurriak segituz egoera gero eta larriagoari erantzuteko: gaurdanik ez baldin bagira hasten berotegi efektuzko gasen isurtzeak murrizten, eta seriozki ez baditugu murrizten hemendik 2020 urtera, sobera berant izanen da klima uzkaileta saihesteko gure amalurrean.

«*Gure etxea sutan da eta beste norabait so egiten dugu*» esaldia bereganatuz, Nicole Etchegoyhen-ek ondokoa iragarri du «*heldu den ekainean, Rio + 20a eta justizia soziala eta ekologikoaren Herrien gailurra mobilizazio memento azkarrak izanen dira mundu osoan zehar bainan Euskal Herrian ere, murrurat eremaiten gaituen lasterketa-ihesaldi horri geldi erraiteko*».

Herri mobilizazioak gauzak aldatzen ahal ditu

Eric Lecoutre-k bere aldetik Bizi!-k Biarritzen ereman duen borroka aipatu du, egoera arrunt gakatu batetik txirringularen erabilpena garatzeko politikak nola hasi diren gauzatzen esplikatuz. Lehen antolaketak (txirringula bideak, bi norabideetako bide esperientziak...) heldu diren hilabeteetan aterako dira. Garaipen horrek herri mobilizazioak gauzak aldatzen ahal dituela erakusten du.

Autoari alternatiba orokorra Euskal Herrian:

Eric Lecoutre-k «*autoari alternatiba politika orokorra, koherentea, haundinahia laster definitu eta gauzatu behar dela*» aldarrikatu du, Euskal Herriko Garapen Kontseiluak urte batez lantzen ahalko lukeena. Bizi!-ren iritziz, behar litaik:

- autobusari erreserbatuak zaizkion bideak azkarki garatu BAB hiri gunean, baita Biarritzeko hiri zentroraino, nahiz eta iduriz hein hortan ere ez duten gogorik zerbaiten egiteko,
- posible den leku guzietan txirringula bide sareak sortu, txirringula tokialdatzeko molde segurra izaitzeko kilometro 1 eta 5km-ren arteko distantzientzat eta gehiago ere (autoz egin tokialdatzeen erdia 3km baino guttiagokoa da).

- kostaldea eta barnekaldearen arteko autobus eskaintza emendatu
- hurbileko treinen eskaintza azkartu existitzen diren treimbideetan Euskal Herrian eta treinen erabilpena beste garraio motekin moldatzeko ahala azkartu (gai horretarako, Collectif en train pays basque-ek egin lana konduhan hartu behar da), hiri guneko tokialdatzeentzat sofreako treinbide zaharra ber erabili, Hendaia eta BAB-ren artean topo baten sortzearen posibilitatea ikertu,
- treinezko merkantzien garraioa egiazki garatu,

-AHT proiektu xahutzailea behin eta betikoz baztertuz geroz, AHT-rentzat pentsatua zen dirua aipatu neurrientzat baliatzen ahalko ginuke.

Bizil-ko autoari alternatibak taldeko arduradunak azaldu duenez azken hitza gisa, Bizil-k « 2012ko legebiltzarreko hautagaiei Iparraldean, kostaldean nahiz barnekaldean, banakako autoari egiazko alternatibak garatzeko» beharra aldarrikatuko du. Bizil-k galdeginen die «argiki haien iritzia plazaratzea, galdera hauei zer erantzun duten eta autoari zer alternatiba orokor plantatzeko proposamen eginen duten»

Ametzondoko Ikearen gune komertzial erraldoiaren proiektuaren aurka:

Sabrina Ravetta eta Mattin Ihidope-k ondotik aurkeztu dute Baiona, Hiriburu eta Mugerren artean Ikearen gune komertzial erraldoiaren etortzeari buruz Bizil-k duen aurkakotasuna. Otsailaren 24an bururatu den Inkesta publikoaren kariatara, Bizil-k argumentoz beteriko iritzia eman du. Hara nola, bertan gaitzesten ziren ingurumenarekiko desmasiak, bai eta ere autopista batetik 100 metro baino hurbilago eraikitzeko baimenen agertzea eta Ikeari eman lur-erretasunak.

Mattin Ihidope-k ber maneran azpimarratu ditu Ikeak sortzen dituen lanpostuen prekaritatea, eta nola sortze horiek, automatikoki suntsituko zituztela oraino postu gehiago eskualdeko komertzioetan, eta bereziki hurbileko komertzioetan (guttienez, 1,5 enplegu hesten dira, Ikean sortzen den bakoxtarentzat). Bizilko ordezkariak aldarrikatu dute etxeko altzariantzat tokiko merkatu bat, ofizialeen elkarlan gune bat (bertako egurraren profesionalek jadanik aipatu dutena), elkarlana Landes-etako egur ekoizleekin eta tokiko egurren ber-balioztatzea.

«Ikea eta haren gune komertzialari Ongi Etorri erran aintzin, galdegin dezagun gure buruei, hori denez lagundu nahi dugun kontsumo eredia, bai guretzat, eta bai gure haurrentzat, hori denez gure herriarentzat amesten dugun lurralde antolaketa, eta holako lan postuek dutenez segurtatuko garapen iraunkor eta solidario bat?» galdezkatu du Sabrina Ravetta-k.

Bihar Zero Zabor Ipar Euskal Herrian?

Regis Dacharry eta Xabier Harlouchet-ek prentsari luzarazi dute txosten bat non Bizil-k aurkezten dituen Ipar Euskal Herrian hondakinen bilketa eta tratamenduari buruzko egoeraren azterketa eta gai horri buruzko proposamenak, bai eta ere Bizil-iren iritzia TMB (SMB) Sailkapen Mekano-Biologikoaren hautuari buruz eta bi poloen hautuari buruz «Canopia» (Baionako Iparraldean) eta Mendixka Sarrikota-Pian.

Bizi! Mugimenduak preziatzen du Bil Ta Garbi Sindikatak sailkapenaren eta konpostatzearen inguruan, desmartxa eraikigarri batean, egiten duen sentsibilizazio lana. Bizi!k pentsatzen du Bil Ta Garbi zinez nahi dituela definitu aterabide hoberenak, jakinez ez dela tamalez hola izan iraganean (eremu publikoak eta pribatuak zaborren gaia molde kaxkarrean kontsideratzen zuten, hetsia izan zen baina oraino leheneratua ez den Bachefores gunearen kasuak erakusten duen bezala).

Baina Bizi!k ez du begi onez ikusten SMB-aren hautu edo aterabide teknologikoa: garapen berdearen mamian gira eta! Hautu horrek erran nahi du ez dela aintz gauza aldatzen jendeen eguneroko bizitzan. Hautu horrek kontsideratzen du jendeak ez litaizkela gai beren ohituren aldatzerat, eta ondorioz, eskas horiek aterabide teknologiko berri batzuren bidez arinu behar direla. Jakinez teknologiaren apusutuak talde industrial haundiei dituela etekinak eskaintzen eta horrek saihesten dituela jendarteak eta tokiko elkargoek kudeatzen dituzten tokiko enpleguen sortzeak.

Bizi!k ere azpimarratzen du, Europar mailan landua izaiten ari den arau berri bat askoz zorrotzagoa izanen dela, eta ondorioz Canopia-tik aterako den konposta ezingo dela erabili. Bizi!k datu hau aintzintzen du TMB/SMB-az (Sailkapen Mekano Biologikoaz) Cercle National du Recyclage -ek egin duen txostena aipatuz. Erakunde horrek biltzen ditu hainbat elkargo eta hondakinen tratatzeko sindikato misto. Txostena hemen topatzen ahal duzue: <http://www.cercle-recyclage.asso.fr/images/stories/pdf2/dossier-tmb.pdf>

« 2012ko urrian, europear arautegi baten proiektua behar litaik plazaratua izan. Horrek behar luke zehaztu, bakarrik bio-hondakinen bilketa bereiztutik eta kalitate erreferentziak jarraitzen dituzten konpostak bakarrik dutela "konposta"ren estatusa lortuko.TMB/SMBtik ateratako konpostek beti ukanen dute hondakinen estatusa eta ondorioz beharko dute barreiatze plano bat jarraitu (askoz astunagoa segipen, lurren azterketa, etab.en mailan). Horrek, TMB/SMB-en izaitea bera zalantzan ezartzen du."

Ondorioz, Batz-eko fabrikak, lanean hasi aintzin zaharkitu bezain jokoz kanpo izaiteko arriskua du. Horrek erran nahi du Bil Ta Garbiren interesa dela behar gabeko (60M€ko) inbertsioaren ahal bezain laster gelditzerat eta bere proiektu orokorraren berrikusterat!

Xabier Harlouchet-ek presentatu du Bizi!k Gipuzkoan eramaiten den Zero Zabor ibilbideaz egin ikerketa: hartzigarrien etxe mailako sailkapen/bilketa, konpostatzearen diru laguntzekilako sustapena, sentsibilizazio kanpaina haundiak, ekoizpen erduei buruzko gogoetak, ber-erabilpenaren eta konponketaren garapena, enpleguen ber-tokiratzea, etab. desmartxa honen ardatz nagusiak dira (Zero Zabor-aren aurkezpen bideoa hemen ikusten ahal duzue: <http://www.bizimugi.eu/?p=4441>).

Régis Dacharry-k bere aldetik labur bildu du Bizi! mugimenduaren proposamena : aktore publiko eta pribatuekin lan egin (lankidetzat batzuren kariatara), gure lurraldean sentsibilizazioa, formakuntza eta aterabideen garapena sustatzeko. Honela jakinarazi du : *«Iparraldeko herri bat edo zombait gomitatzen ditugu «Zero Zabor» politikaren plantan emaiterat, jakinez entsegu hori komunikazio arloan puntu indartsu bat bilakatuko dela haientzat. Botere publikoak animatzen ditugu iker dezaten tasa ezberdin baten plantan emaita bertutedun jokamoldeen indartzeko, eta zaborren kudeaketaren jarraipena egiteko, plantan eman dezaten kriterio adierazle sorta bat (denek errex segitzeko moldean), bilketen kopuruaren jarraitzeko (etxebizitzetako hondakinak orokorrean, sailkapenak, konpostagailu banaketak, zabortegeiak,etab) eta bildutako toneladen*

kalitatea jarraitzeko.». Ondotik interesatuak litaizken pertsona guziak gomiatuak ziren gai horren jorrazeko harremanetan sartzera Bizi!rekin (zerozabor@bizimugi.eu)

Urte bat Fukushima eta gero, energia zalantzan:

Séverine Duchène-ek bururatu du hitzaldia Ainiza-Monjolosen, Mugerren, Donibane Lohitzunen eta Baionan irganen den «*Energia zalantzan*» saioa aurkeztuz.

«*Zonbait egun pentsaketen egiteko, gero hobeago baten preparatzeko, hori da gure ekarpena, ber denboran haundinahia, baina umila, Fukushima-ren zorigaitzaren lehen urteurrenaren ospakizunetan*» adierazi du Bizi!ko ordezkariak.

Bizi! eta Manu Robles-Arangiz Fundazioak elkarrekin antolatua duten 4 hitzaldiz osatutako saio honetan, noski nuklearretik ateratzea aipatua izanen da, larunbatean, martxoaren 10an, arratseko 19 :00etarik goiti, Atalante zinegelan, Baionan, eta hortarako «*Le Nucléaire, une névrose française*» liburuaren egilea den Patrick Piro-ren parte hartzea ere ukanen dugu.

Baina, Bizi!k gogoeta zabaldu nahi du: posible dea nuklearretik ateratzea eta ber denboran planetaren beroketaren ardura duten petrolio, gaz eta ikatzen erretzerik gabe bizitzera? Bai, erranen eta adieraziko digute, Paul Neau, Negawatt gidoi-eko adituak, larunbatean, martxoaren 10an, goizeko 10etan, Donibane Lohitzunen, Patrick Baronnet-ek, Mugerren, ostiralen martxoaren 9an, arratseko 20 :00etan, eta, Benoît Thévard-ek, Ainiza Monjolosen, ostegunarekin, martxoaren 8an, arratseko 20 :30n, hitzaldi-konferentzia-proiektzio baten kariatara, EHLGn.

Jende kate bat nuklearretik ateratzeko martxoaren 11an:

Azkenik, Sèverine Duchène-ek jendarte guzia deitu du parte hartzerat jende kate haundi batean, igandean, martxoaren 11an, goizeko 11:30tan Baionan (Paul-Bert plazan) nuklearretik ateratzea aldarrikatzeko bai eta ere Garoñako Zentralaren berehalako gelditzea. Gogoeta eta proposamenetatik at, Bizi!rentzat mobilizazioa sekulan baino gehiago baitezpadakoa gelditzen da konzientzia hartzeen bizkortzeko eta politika publikoen aintzinarazteko, arlo globalean bai eta tokikoan ere.

